# ABENTURA KUANTIKOA



eidabe

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CIENCIA UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN

Qubit Inspektorea eta bere laguntzailea kasu berezi eta misteriotsu bati aurre egiteko prest daude: kutxa batean dagoen katu bat… bizirik ala hilik dago? Ez dago argi, baina jakiteko, ordenagailu kuantiko bat beharko dute —eta ez edozein. IBMren Quantum System Two, Europako indartsuena eta Euskal Herrian bertan instalatua.

Baina… makinaria martxan jartzeko ikusleen laguntza ezinbestekoa izango da!

Antzezlan honetan, ikusleek Qubit Inspektorearen laguntzaile bihurtuko dira, eta fisika kuantikoaren sekretuak azaleratuko dira umorez eta ekintzaz beteriko abentura batean: superposizioa, korapilatzea eta ziurgabetasuna bezalako kontzeptuak modu bisualean ulertuko dituzte, jolasa eta zientzia uztartuz.

Eta galdera handia airean: katua bizirik dago? Hilik? Edo biak aldi berean?

Zientzia eta irudimenaren artean murgildu eta lagundu misterioa argitzen!

**IRAUPENA:** 50 minutu.
**PUBLIKOA:** 4-9 urteko haurrak + familiak.
**GENEROKA:** Zientzia-fikzio hezitzailea, komedia interaktiboa.
**HELBURUA:** Fisika kuantikoko oinarrizko kontzeptuak modu ludiko eta parte-hartzailean ezagutaraztea: superposizioa, korapilatzea eta ziurgabetasuna.

# FITXA ARTISTIKOA

Egilea
**Eneko Axpe**

Zuzendatiza artistikoa
**Ugaitz Alegria**

Eszenografia
**eidabe. Asierito**

Antzezleak
**Nagore Cenizo-Arroyo**
eta **Irati Herreros**

Musika
**Inun**

Soinu eta
Argia teknikaria
**Xabi Urritikoetxea**

Diseinua
**BLK Komunikazioa**

Argazkiak eta
Komunikazioa
**ilara**

Kontratazioa
**eidabe**
**www.eidabe.com**
**info@eidabe.com**
**944 794 315**